



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2017.01.17an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
MARIA UBARRETXENA CID
IBON ARRUPE ALDECOCEA
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA

ETORRI GABEAK

OSCAR GARCÍA HORRILLO
ELENA LETE GARCIA
SABINO AZCARATE LETURIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
BERGARA
BERGARA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko urtarrilaren 17an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkorro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2016ko abenduaren 20an egindako bilkura bereziko aktaren zirriborroa.

2.- HONDAKINEN KUDEAKETA

2.1.- Papera eta kartoia saltzeko kontratazio espedienteak; prozeduran atzera egitea eta lizitazio prozedura berri bat irekitzea

Proposamenak aurkezteko epean esleitze-prozeduraren arau erregulatzailen zuzendu ezinezko arau-hauste bat detektatu denez, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duen, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 155.4 artikulua araberak, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. 2016ko abenduaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako papera eta kartoia saltzeko lizitazio prozeduran atzera egitea.
2. Aipatu salmenta kontratatzeko lizitazio prozedura berri bat irekitzea, horretarako kontratazio espedienteak eta Administrazio Klausula Partikularren Agiri berriak onartuz, eta espediente hau presazkoa deklaratu.
3. Erabaki hau lizitatzailerak guztiei jakinaraztea eta Kontratatzaileraren Profileen argitaratzea.

2.2.- “Epeleko zaborregian isurketa-gelaxkaren I faseko konfinamendua eta II fasearen egokitzapena eta I fase gaineko EEH-plataformaren proiektua” gauzatzeko CESPА GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A. enpresarekin sinatutako kontratua suntsiaraztea

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2016ko uztailaren 12an egindako bilkuran, “Epeleko zaborregian isurketa-gelaxkaren I faseko konfinamendua eta II fasearen egokitzapena eta I fase gaineko EEH-plataformaren proiektua” eta proiektu hau gauzatzeko kontratazio espedienteak, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren Agiriak onartu zituen, esleitze prozedura irekitzea erabakiz.

Horretarako emandako epean bost proposamen aurkeztu ziren, bostak onartuz:

1. UTE CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A./EXCAVACIONES Y TRANSPORTES LEKEN, S.L.
2. OBRAS PÚBLICAS ONAINDÍA, S.A.
3. HARINSA NAVASFALT, S.A.
4. CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.
5. CESPА GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A.

B gutun-azalean jasotako dokumentazioa balioetsi ondoren, C gutun-azaleko proposamen ekonomikoak ireki ditu Kontratazio Mahaiak eta eskaintzak segida beharokorrean sailkatu ditu, Administrazio-Klausula Berezien Agirian jasotako irizpideen arabera.

Gobernu Juntak, 2016ko irailaren 27an egindako bilkuran, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, eskaintzen ondorengo sailkapena onartu zuen:

	<u>Enpresa lizitatuak</u>	<u>B gutun-azala</u> <u>Balio-judizio baten mende dauden irizpideak</u> 50 puntu	<u>C gutun-azala</u> <u>Proposamen Ekonomikoa</u> 50 puntu	<u>GUZTIRA</u> 100 puntu
1	HARINSA NAVASFALT, S.A.	46	48,23	94,23
2	CESPA GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A.	42	50,00	92,00
3	CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.	49	42,285	91,285
4	OBRAS PÚBLICAS ONAINDÍA, S.A.	36	42,55	78,55
5	UTE CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A./EXCAVACIONES Y TRANSPORTES LEKEN, S.L.	30	43,86	73,86

Sailkapen honen arabera, HARINSA NAVASFALT, S.A. enpresak aurkeztutako proposamena zenez ekonomikoki onuragarriena, aipatu enpresari hamar laneguneko epea eman zitzaion beharrezko dokumentazioa aurkezteko.

Aipatu enpresak ez zuenez emandako epean errekerimendua bete, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuenak, 151.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, bere proposamena erretiratu zuela ulertu zen, dokumentazio berdina eskaintzen sailkapenean hurrengo zegoen lizitatuari eskatuz, hau da, CESPA GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A. enpresari.

Enpresa honen dokumentazioa jaso ondoren, aipatu obra kontratua esleitu zitzaion 382.199,45 €-ko prezioan, gehi BEZ, eta zegokion kontratua sinatu zen.

CESPA GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A. enpresak aurkeztutako Osasun eta Segurtasun Plana onartu ondoren, eta zuinketa-akta sinatzear zegoela, aipatu enpresak, hainbat ezustekogatik kontratua betetzeko zailtasunak aurreikusten dituela eta, kontratu suntsiaraztea proposatu dio Mankomunitateari.

Proposamen honi buruzko Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoaren txostena ikusirik, eta obra honen presa kontuan hartuz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. CESPА GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A. enpresarekin “Epeleko zabortegian isurketa-gelaxkaren I faseko konfinamendua eta II fasearen egokitzapena eta I fase gaineko EEH-plataformaren proiektua” gauzatzeko 2016ko abenduaren 2an sinatutako obra kontratua elkarrekin adostuta suntsiaraztea, aipatu txosten teknikoan jasotako interes publikoko arrazoiak direla medio, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 223, c) artikulua babesean, horretarako dagokion agiria sinatu eta behin betiko bermea bueltatuz.
2. Eskaintzen sailkapenean hurrengo dagoen lizitatzaileri, hau da, CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L. enpresari, hamar laneguneko epea ematea kontratua esleitu ahal izateko dagokion dokumentazioa aurkezteko.

2.3.- Behin behineko informatzaileen izendapen proposamena

Hondakinen Kudeaketa Batzordearen irizpen txostena irakurri da. Txosten honetan hondakinen bilketari buruzko hainbat lan egiteko hiru informatzaile urtebeterako izendatzea proposatzen da.

Idazkariak esan du bitarteko funtzionario hauek behin behineko programa edo lan zehatzak egiteko izan behar dutela, eta jarraian egindako aldi baterako izendapen hauen arriskuaz ohartarazi du.

Gobernu Juntak, Hondakinen Kudeaketa Batzordearen proposamenak jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU.

Mankomunitateak lan hauetarako duen lan poltsa erabiliz, 2017ko otsailaren 1etik 2018ko urtarrilaren 31 arte hiru informatzaile bitarteko funtzionario izendatzea hondakinen bilketari buruzko hainbat lan egiteko. Hileko ordainsari gordina 2.070,50 €koa izango da, honela banatuta:

- Soldata: 713,13 €. (C1)
- Lanpostu-mailako osagarria: 374,82 €. (17)
- Berariazko osagarria: 982,55 €.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

3.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; baimen berri bat eta fidantza bat bueltatzea

- Baimen berria; J. J. I. Y.

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroan zerbitzu modulu bat libre gelditu denez, eta itxaron zerrendan honako eskaera hauek daudenez, lortutako puntuazio ordenan:

1.- J. J. I. Y. (Pruna Capital SLU) (Enpresen kapitalizazioarako eta hazkunderako aholkularitza zerbitzuak) 2016ko azaroko batzordean baloratutako eskaera. Lortutako puntuazioa: 37 puntu.

2.- Z. A. J. (Enpresa Aholkularitza) (Enpresei, langileei eta langabetuei bideratutako aholkularitza eta prestakuntza) 2016ko abenduko batzordean baloratutako eskaera. Lortutako puntuazioa: 36 puntu.

3.- S. I. G. (Shakti Reiki Kontsulta) (Reikiren kontsulta). 2016ko abenduko batzordean baloratutako eskaera. Lortutako puntuazioa: 25 puntu

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- o J. J. I. Y. jaunari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (3-ZM) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarririk gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- Fidantza bat bueltatzea; M. A. F.

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedienteak ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengoa ERABAKI DU:

- M. A. F. ekintzaileari bere egunean jarritako 216,69 €ko fidantza bueltatzea.

3.2.- Aretxabaletako Enpresa Ekimenetarako Zentroaren programa garatzeko lankidetzaren hitzarmena

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia Zerbitzuak, besteak beste, Enpresa Ekimenetarako Zentroaren programa kudeatzen du. Programa horren bidez, batetik, ekintzaile berriei aholkularitza eskaintzen zaie beraien ideien bideragarritasun proiektuak garatzeko eta, bestetik, enpresa abian jartzeko, aldi baterako kokapena bermatze aldera, Enpresa Ekimenetarako Zentroko

lokalak eskura jartzen zaie horretarako Mankomunitateak onartuta duen araudiaren pausuak jarraituta eta bertan ezarritako baldintzen arabera.

Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan, Arrasateko Nafarroa Etorbidean, kokatzen dira, gaur egun, Enpresa Ekimenetarako Zentroak dituen lokalak. Lokal horiek bulegoak eta tailerrak dira, zerbitzuzko zein eraldaketa aktibitateak garatu ahal izateko, baina, dagoeneko, bulego guztiak beteta daude eta eskatzaileen zerrenda dago.

Bestalde, Aretxabaletako Udalak herrian sortzen diren zerbitzu sektoreko enpresa-ekimen berriei udalerrian bertan kokapena erraztu nahi die, eta ondorioz Aralar Kanean dituen bulegoak horretara bideratu nahi ditu. Horren kudeaketa egokiena egiteko, lokal horiek Debagoieneko Mankomunitateko Enpresa Ekimenetarako Zentroaren eskuan jartzea dela deritzo.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aretxabaletako Udalarekin hitzarmen bat sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

1. Aretxabaletako Udalak dohainik lagako dio Debagoieneko Mankomunitateari Aretxabaletako Aralar kanean kokaturik dauden bulegoak (agiri honi eransten zaion planoan zehaztutakoak) bertan "Enpresa Ekimenetarako Zentroa" programa garatzeko. Bulego horiek zerbitzu sektoreko enpresa berriak kokatzeko erabiliko dira eta horien erabilera baimentzea Mankomunitateak onartutako araudiaren arabera egingo da.

Helburu hori ez bada betetzen, aipatutako bulegoak automatikoki eta dohainik Aretxabaletako Udalaren esku geratuko dira.

2.- Bertan jarriko diren enpresek Aretxabaletako udalean irekiera baimena eskatu eta lortu beharko dute bertan kokatu aurretik, Mankomunitateak onartuta duen araudiaren arabera. Aretxabaletako udalak baimendutako aktibitateak garatzeko soilik erabiliko dira lagatutako lokalak. Enpresek bertan egoteko denbora mugatua dutenez eta lokalen lagapen baldintzak berdinak izan daitezten, Aretxabaletako udalak irekiera baimen horiek %90eko hobariaz emateko konpromisoa hartzen du.

3.- Bulegoak adjudikatzen ez diren bitartean, Aretxabaletako udalak bulegoak erabili ahal izango ditu, baina Mankomunitateak enpresa ekimen berri bat bertan kokatzea onartuz gero, Aretxabaletako udalak, gehienez, bi hilabeteko epea izango du lokala erabiltzeari uzteko eta Mankomunitatearen eskura jartzeko.

4. Bulegoen mantenua, garbiketa eta zerbitzuen hornikuntzarako egin beharreko instalazioak eta hartuneak eta horien erabileragatik sortutako gastuak Mankomunitatearen kontura izango dira.

5. Debagoieneko Mankomunitateak lokalak jasotzen dituen egoeran mantentzera konprometitzen da, beharrezko konponketak bere kontura eginez. Halaber, erabiltzaileek egindako kalteen erantzule izango da, eta lagapena bukatzean hartu zituenean bezalaxe itzuli beharko dizkio Aretxabaletako

udalari. Aretxabaletako udalak aurretik baimentzen ez badu, Mankomunitateak ezingo du lokalen egitura aldatuko duen lan edo obrarik egin. Mankomunitateak edonolako lan edo obrarik egiteko, aurrez Aretxabaletako Udalaren baimena izan beharko du; betiere udalak gainbegiratuko ditu egiten diren obrak eta

horiek etetea agindu dezake baimena ematerakoan ezarritako baldintzak betetzen ez badira. Edonola ere, egindako lanak lokalen mesederako izango dira beti, eta inola ere ez dute kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik sortuko.

Edozein motatako ekintza edo ez egiteren ondorioz lokalen barruan gerta daitezkeen kalte materialen, pertsonalen edo moralen erantzukizunik ez du bere gain hartuko Aretxabaletako Udalak, ez zuzenean ez subsidiarioki. Debagoieneko Mankomunitateak dagokion erantzukizun zibileko asegurua izenpetu beharko du.

6.- Mankomunitateak ekintzaile berriei emango dien informazioaren barnean, Arrasateko zein Aretxabaletako lokalak maila bereko tratamendua jasoko dute, beraz, informazioa emateko orduan bi aukerak proposamen baten barruan eskainiko dira.

7. Edonola ere, lokalak erabiltzeko lagapena honako agiria izenpetzen denetik 15 urtera bukatuko da, dena dela, udalak, sei hilabeteko aurrerapenarekin, idatziz jakinarazita, lehenago amaitutzat eman ahal izango du, baina, edozein kasutan, errespetatu egingo dira une horretan Mankomunitateak, jadanik, ekintzaileekin hartutako konpromisoak. Lagapen epea, alde biak adostua, luzatu ahal izango da.

3.3.- Debagoieneko eskualdean 16 eta 18 tarteko gazteen lan txertaketa errazteko onura publikoko erakundeek bultzatutako programak diruz laguntzeko deialdia

Gazteen enplegu gabezia da gure gizarteak duen arazo garrantzitsuenetariko bat. Azkeneko urteetan jasandako krisialdi ekonomikoak eta ondorioz sortutako lanpostuen galerak, are eta gehiago eragotzi du kualifikaziorik gabeko gazteen lan merkatuan txertatzeko aukerak. Lan txertaketa lortzeko gazteek dituzten eragozpenak tipologia ezberdinetakoak dira, batetik, kanpo arrazoiak daude, besteak beste, lan merkatuaren ahultasuna eta, bestetik, barrukoak, gazteen prestakuntza eta kualifikazioaren ezarekin zerikusirik dauzkatenak.

Zalantzarik gabe, kualifikazio profesionala eta oinarrizko prestakuntza ez izateak, zaildu eta murriztu egiten ditu, enplegu gabeko gazteak, txertaketa laborala eta soziala lortzeko aukerak. Egoera hori denboran luzatu egiten bada, egoera sozial konplexuak ondorioztatu daitezke non gogogabea, uzkurdura eta geldotasuna areagotu egiten dira, zenbait kasuetan bazterkeri sozialeko problematika bat sortuz.

Egoera horiek ahal den neurrian eragozteko, erakundeek, azkenengo hamarkadetan, prestakuntza programa osagarriak bultzatu dituzte, arautuak zein arautu gabekoak, beti ere, derrigorrezko bigarren mailako titulazio gabe hezkuntza sistema laga duten gazteek prestakuntza eta oinarrizko kualifikazio bat lortu dezaten helburuarekin. Beti ere, programa horien helburua lanbide prestakuntza arautura itzultzea edo lan merkatuan txertatzea da.

Programa horiek lan txertatzea errazteko lagunduko duten ekintza osagarriak eta orientazio egokia garatzea behar dituzte, baita ere, txertatze emaitza hobekoak lortzeko banakako jarraipenak eta beste ekintza garrantzitsuen beharra dute.

Hori guztia kontuan hartuta, Debagoieneko Mankomunitateak, eskualdean horrelako programak garatzen dituzten erakunde pribatuentzat laguntza lerro bat artikulatu nahi du. Beti ere, gazte horien kualifikazioa eta oinarrizko prestakuntza osatuko duten ekintzak bideratzeko.

Hau dela eta, Mankomunitateko Gobernu Juntak, Garapen Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1.- Mankomunitatearen lurralde-eremuan 16 eta 18 urte tarteko gazteen lan eta gizarte txertaketa errazteko programak garatzen dituzten onura publikoko erakundeei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileei hasierako onspena ematea.

2.- Erabaki hau eta horretarako bideratutako espedientea informazio publikorako aurkeztea 30 lanegunez, interesatuek aztertu eta bidezko iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

3.- Hasierako erabaki hau, beste erabakirik hartu beharrik gabe, behin betiko onartutzat ematea, erreklamaziorik ez bada aurkezten.

4.- LEHENDAKARITZA

4.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

16/123.- CESPА GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A. enpresak aurkeztutako Segurtasun eta Osasun Plana onartzea, Segurtasun eta Osasunaren koordinatzaileak bere txostenean ezarritako baldintza eta aholku guztiekin.

16/124.- 16/43 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA HAMAZORTZI MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA BOST EURO ETA LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (118.485,89 €).

16/125.- 16/44 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira ZAZPIEHUN ETA BOST MILA ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (705.070,47 €).

16/126.- 1.- A. A. G. kontratatzea abenduaren 16tik aurrera S. C. zamaketariaren ordezkapena egiteko, bere gaixotasunagatikoko bajaldia bukatu arte. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J. R. A. kontratatzea zamaketari bezala ondorengo lanak egiteko:

- Abenduaren 20an eta 21ean Antzuolako esekitokiak garbitzeko.
- Abenduaren 22an eta 23an, J. E. zamaketariaren ordezkapena egiteko.
- Abenduaren 26tik 30era, J. J. zamaketariaren ordezkapena egiteko.
- Urtarrilaren 5ean, Arrasateko errefusa komertziala jasotzeko zerbitzu berezia egiteko.

Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- G. I. A. kontratatzea abenduaren 22an eta 23an, eta 29an eta 30ean M. L.ren ordezkapena egiteko, eta urtarrilaren 5ean Arrasateko errefusa komertziala jasotzeko zerbitzu berezia egiteko, txofer-zamaketari bezala. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- M. S. R. kontratatzea abenduaren 26tik urtarrilaren 3ra arte, Garbiguneko zainzailea den D. G.ren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- E. A. I. kontratatzea urtarrilaren 4an Garbiguneko zainzailea den A. U.ren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

16/127.- 16/45 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUROGEITA HAMAHIRU MILA ZAZPIREHUN ETA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA HAMABI ZENTIMO (93.712,92 €).

16/128.- 16/46 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA HAMAHIRU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMO (33.530,85 €).

Gobernu Juntako kideen legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin premiazkoztat jo ondoren, gai-zerrendan sartu gabeko ondorengo puntua aztertzeari ekin zaio.

Debagoieneko Gizarte Zerbitzuen Mapa egiteko kontratu txikia

SiiS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak, Eguía-Careaga Fundazioak, Debagoieneko Gizarte Zerbitzuen Mapa egiteko aurkeztu duen proposamena ikusirik, eta kontuan izanda azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 138.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, hau kontratu txikia dela.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Gastua onartzea, eta SiiS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroari, Eguía-Careaga Fundazioari, Debagoieneko Gizarte Zerbitzuen Mapa egiteko kontratu txikia esleitzea 17.350 €-ko prezioan, bere proposamenean zehaztutako baldintzetan.

5.- GALDE-ERREGUAK

- Maria Ubarretxenak, Arrasateko alkateak, eskatu du zabor bilketaren frekuentziak igotzea edo/eta edukiontzi gehigarriak jartzea, esaterako ontzi arinei dagokienez.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:30etan, bukatutzat eman da bilkura.